

HAURREN LAN-USTIAPENA

Bangladesh 5 urteren buruan



Haurren lan-ustiapena

Bangladesh 5 urteren buruan

EDUCO

Garapenerako lankidetzako nazioarteko GKE bat gara, eta haurren alde eta haurren eskubideak defendatzeko egiten dugu lan, bereziki kalitatezko hezkuntza izateko eskubidearen alde. Neska-mutilekin eta haien inguruarekin egiten dugu lan, haien eskubideak eta ongizatea bermatzen dituzten gizarte zuzen eta bidezkoagoak sustatzeko. Pertsona guztiei bizitza duin batez osoki gozatzeko aukera ematen dien mundu bat eraiki nahi dugu.

Gure lehentasuna umeak eta nerabeak dira, zehazki, egoerarik zaugarri eta baztertuenean daudenak, eta arreta berezia eskaintzen diegu neskei.

Gure lana **haurren eskubideak** bete daitezela bultzatzera bideratuta dago, beti ere eskubideak arautzen dituen nazioarteko hitzarmenaren esparruan (Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989), baita haurren ahal besteko ongizatea bilatzera ere, ezin hobea baita gizarte bidezkoagoak lortzeko eman diren aurrerapausoak ebaluatzeko.

Eskubideen ikuspegi honek gure ekintza guztietan hitzarmenaren oinarritzko printzipioak aplikatu behar direla esan nahi du, hau da: diskriminaziorik eza, haurren interesaren lehentasuna, bizirauteko eta garapenerako eskubidea eta umeek eta nerabeek beren iritzia adierazteko eta berekin lotutako gai guztietan kontuan hartuak izateko duten eskubidea.

Hezkuntza, berez eskubide bat izateaz gain, gainerako eskubideak eta askatasunak lortzeko nahitaezko tresna da. Horregatik ziur gaude eztaba daezina, eskuragarria, irigarria, onargarria eta moldagarria izan behar duela. Gure ustez horrela bakarrik delako pertsonen eta haien komunitateen bizitza aldatzeko gai, bidezkoagoak eta berdintasunezkoagoak diren gizarteak erakitzen lagunduz, alegia.

Gure erakusketek munduko arazoak ezagutzera ematen laguntzen dute, gure inguruan kontzientzia kritikoak esnaraziz. Horregatik, errespetuan eta giza duintasunaren sustapenean eta gizarte-kontzientzia kritikoan oinarrituta dagoen eta gizartearen bidegabekeriak aldatzeko dinamikak sortzeko gaitasuna duen **biztanleria global aktiboaren** kontzeptua bultzatu eta indartzeko egiten dugu lan. Horrek **kontzientzia eta jarrera kritikoak, tolerantia eta solidarioak garatzen laguntzea** esan nahi du, pertsonen eta gizartearen arteko lankidetzak sustatzeko, justizia soziala bultzatzera bideratuta. Helburu horrekin, sensibilizazio-ekintzak gauzatzen ditugu udaletan, liburutegietan, kultur etxeetan, unibertsitateetan, etab.



Haurren lan-ustiapena

Bangladesh 5 urteren buruan

EDUCO 2015 ERAKUSKETAK

Erakusketa honen bitartez, **Bangladesheko umeen lanaren** errealitatea hurbiletik ezagutzea nahi dugu, eta Educok herrialde horretan hezkuntzaren esparruan egiten duen lanaren bilakaera erakutsi nahi dugu.

Erakusketa hamaika panelek osatzen dute, eta panel horietan, **José Alfonsoren** eta **Puig Venturaren argazkiei** esker, ume langileen errealitate desberdinak ikus daitezke. Irudietan, haien eguneroko bizitza eta lan-baldintzak ikus daitezke, baina haurtzaroaren beste aurpegia ere ikusten da, **hezkuntzarako eskubide unibertsalak** eskaintzen duena eta umeen garapenerako dituen abantailak. Kalitatezko hezkuntza jasotzea, jolasteko eskubidea izatea, osasun-sistema eskuragarri izatea eta elikadura orekatua eta nahikoa izatea erabakigarria da edonoren bizitzaren lehenengo urteetan, eta etorkizuneko bizitzarako hobeto prestaturik egoteko aukera ematen dute.

Bangladesh, bost urteren buruan Educok José Alfonsoren argazkiei esker 2007an egin zuen erakusketaren jarraipena da. Argazkilari madrildarrak haurren lanaren aurpegia erakutsi nahi izan zigun, Bangladeshen zazpi milioi umek baino gehiagok bizi duten errealitate bat, alegia. Bost urte geroago, Alfonsoren argazkiekin batera, erakusketa Puig Venturak ume langileak nola dauden ikusteko egin zuen bidaia batean hartu zituen irudiekin osatzen da. Arazoak bere horretan jarraitzen duen eta umeek beren familiak mantentzen lagundu behar duten arren, orain aukera bat dute: kalitatezko hezkuntza jaso dezakete, ordutegi egokituekin, eta horrela, beren ikasketak amaitu ahalko dituzte, eta hori beren bizi-baldintzak hobetzeko lehenengo urratsa da.

EDUCO BANGLADESH-EN

2001ean, **Educok** Dhakako eskualdeko **32 hiri- eta landa-komunitatetan egiten zuen lan, hezkuntza formaleko 34 eskolarekin**, eta eskola horietan **8.200 umeri** baino gehiagori eskaini zaie arreta, lehen hezkuntza jaso dezaten. Era berean, ume langileentzako **5 eskolatan** egiten du lan, eta eskola horiek dagoeneko **855 ikasle** izan dituzte guztira.

Haurren ustiapena herrialdeko arazo nagusietako bat da. Ez da ezohikoa umeak beren garapena arriskuan jartzen duten lanak egiten ikustea, adibidez, harriak txikitzea, lantegietako makinetan lan egitea edo etxeko edo landako lanez arduratzea.

Are gehiago, munduan lan egiten duten **5 eta 17 urte arteko 200 milioi umeen** artean, **7,4 milioi** baino gehiago dira **Bangladeshekoak**, hau da, herrialdeko ume guztien % 8, osotara. Egoera hau are larriagoa da Dhakako slumetan, hau da, auzo marjinaletan. Adibidez, Korail-ekoan, **umeen bosten batek lan egiten du eta heren bat ez dago eskolaturik**; Educok bertan lan egiten du.

Arazo konplexua dela kontuan hartuz, oro har komunitateen eta zehazki umeen gaitasunak defendatzea haurren lan-tasa murrizteko lagungarria dela defendatzen dugu. Hezkuntza haurren lanerako alternatibarik onena dela uste dugu, eta **guztionezko hezkuntzarako eskubidea** bultzatzeak epe ertain eta luzera abantaila handiak dituela defendatzen dugu, ume eta nerabe hezien **bizi-kalitatea hobetzeaz** gain komunitatearen eta herrialdearen **garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzen duelako**.

Zentzu horretan, **Educok Bangladeshen** bi ildotan egiten du lan: batetik, ume langileek eskolara joateko aukera izan dezatela errazten dugu **Working Children School (WCS)** proiektuaren bitartez. Proiektu horren helburua da bost eskolaren bitartez kalitatezko hezkuntza ez-formalerako sarbidea areagotzea.

Horretarako, curriculum formala eta ordutegiak haien egoerara eta gaitasunetara egokitzen dira. Era berean, WCSetan, hezkuntza-sistema formalera sartzeko azterketak prestatzen laguntzen zaie, bigarren hezkuntza egiteko aukera izan dezaten.

Gainera, **irakasleak prestatzeko** jarduerak **eta familiak eta lan-emaileak** hezkuntzaren garrantziari eta haurren eskubideei buruz **sentsibilizatze**ko ekintzak gauzatzen ditugu.

Bestalde, **kalitatezko hezkuntza** eskaintzen diegu eremurik kaltetuenetako umeei, **8.200 ikasle hartzen dituzten hezkuntza formaleko 34 eskolaren** bitartez.

Haurren lan-ustiapena

Bangladesh 5 urteren buruan

FITXA TEKNIKOA

- Erakusketa oso biribila da, eta aldi berean arina eta muntatzeko erraza da.
- Foamezko 150 x 90 cm-ko 10 panelek osatzen dute.
- Panel bakoitzak triangelu formako oinarri bat du lurrean jarri eta zutik mantendu ahal izateko.
- Educok bere materialak beti eskaintzen ditu dohainik, eta erakunde hartzaileei eskatzen die ahal dela erakusketaren garaioaren edo bidalketaren gastuak beren gain hartzeko.

Jarduera osagarriak:

Erreportajea eta hitzaldia

Argazki-erakusketaren esparruan, 60 minutu inguruko jarduera bat antolatzeko aukera ematen dugu. Jarduera honek haurren ustiapenaren eta umeen eskubideen inguruko hitzaldi bat eta bertaratuekin egiten den eztabaida barne hartzen ditu.

